– eta idazati bereko a) letran honako hau esaten den lekuan:

«...eta Larraldiak Koordinatzeko Zentruetako kideak...»

honako hau esan behar da:

«...eta Larrialdiak Koordinatzeko Zentruetako kideak...».

– y en la letra a) del mismo apartado, donde dice:

«...eta Larraldiak Koordinatzeko Zentruetako kideak...»

debe decir:

«...eta Larrialdiak Koordinatzeko Zentruetako kideak...».

INDUSTRI, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

Zk-405

1/1998 DEKRETUA, urtarrilaren 13koa, Behe Tentsioko zenbait Instalazio liberalizatu eta instalazio horiek jardunean ipintzeko behar diren izapidatze prozedura eta agiriak ezartzen dituena.

Dekretuan ezartzen den prozeduraren helburua behe tentsioko elektra instalazioak jardunean ipintzeko behar diren izapide administratiboak sinplifikatzea eta murriztea da. Eta horrek ez ditu gutxituko norbanakoen edo ondasunen segurtasun bermeak; ez eta energia erabiltzean behar den arrazionalizazio kontrolaren bermea ere. Izapideok, Behe Tentsioko eta Jarraibide Tekniko Osagarrizkoen Arautegi Elektroteknikoan eta Industri eta Merkataritza Sailaren (gaur Industri, Nekazaritza eta Arrantza Saila) 1989ko urriaren 20ko Aginduan jasotakoak dira. Dekretu honen aplikazio eremuak hartzen dituen instalazioen sinpletasun teknikoa, ugaritasuna eta antzekotasun teknikoa jotzen dira aipatutako prozeduraren abiapuntu lez. Guzti hori, irailaren 26ko 2135/1980 Errege Dekretuan ezarritako industri liberalizazioko prozesuan sakonduz, hain zuzen ere, Industriari buruzko uztailaren 16ko 21/1992 Legez sendetsitako dekretuan.

Dekretu honetako xedapen zatian garatzen den izapidatze sistemak lotu nahi ditu, alde batetik, Administrazio honek dituen giza baliabideak eta baliabide teknikoak, eta bestetik, eragindako instalazioen jardunean zenbait segurtasun neurri bermatzeko beharra. Bide horretatik, prozeduraren geroagoko aldi batetan beteko du Administrazioak artekarilana; ez dio instalazioen kontrolari begiratuko hutshutsean, baizik eta instalazio horien diseinuan, exekuzioan eta jardunean ipintzean parte hartzen duten agenteen (instalatzaileak, enpresa hornitzaileak, ...) kontrolari. Maiatzaren 17ko 175/1994 Dekretuan jaso eta araututako auditorien sistema bidez burutu-

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, AGRICULTURA Y PESCA

Nº-405

DECRETO 1/1998, de 13 de enero, por el que se liberalizan determinadas Instalaciones Eléctricas de Baja Tensión y se establece el procedimiento de tramitación y la documentación necesaria para la puesta en servicio de tales instalaciones.

El procedimiento que se establece en Decreto, partiendo de la simplicidad técnica de las instalaciones que entran bajo su ámbito de aplicación, de su elevado numero y similitud técnica y avanzando en el proceso de liberalización industrial establecido en el Real Decreto 2135/1980, de 26 de septiembre, y confirmado por la Ley 21/1992, de 16 de julio, de Industria, tiene por objeto facilitar y reducir los trámites administrativos para la puesta en servicio de las instalaciones eléctricas de baja potencia, previstos en el Reglamento Electrotécnico de Baja Tensión e Instrucciones Técnicas Complementarias y en la Orden del Departamento de Industria y Comercio (hoy Industria, Agricultura y Pesca), de 20 de octubre de 1989, sin que ello suponga, en ningún caso, una disminución de las garantías de seguridad para las personas o los bienes, ni del control de la necesaria racionalización en el uso de la energía.

El sistema de tramitación que se desarrolla en la parte dispositiva de este Decreto trata de conjugar los recursos humanos y técnicos de los que dispone esta Administración con la referida necesidad de garantizar unas determinadas medidas de seguridad en el funcionamiento de las instalaciones afectadas. En este sentido, el papel interventor de la Administración pasa a una fase posterior del procedimiento, incidiendo en el control no de las instalaciones en sí mismas, si no en el control de los agentes (instaladores, empresas suministradoras, ...) que intervienen en el diseño, ejecución y puesta en servicio de las mismas; control que se efectúa a través del sistema de audito-

ko da kontrola.

Instalazio industrialak jardunean ipintzeko prozesuan parte hartzen duten agente guztien erantzukizun sistema berria arautu eta garatzen du indarrean dagoen legediak eta, zehatzago esanda, Industriari buruzko Legeak. Lege horretan sortzen dira mekanismoak erantzukizun hori exigitzeko ahalmena izan dezaten subjetuetariko bat Administrazioa bera izan dadin, hain zuzen ere, arau horiek garatuz onar daitezen prozedura administratiboen bidez.

Ildo horretatik, izapideak sinplifikatzearekin eta aurkeztu behar diren agiriak gutxitzearekin, Administrazio Publikoaren jarduneko azkartasun eta eraginkortasun irizpide berriei egokitu nahi die prozedura. Herri-Administrazioen Lege-Jaurbideari eta Guztientzako Administrazio Ihardunbideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legean agertzen dira irizpideok.

Ondorioz, Industria gaietan EAEko Estatutuak eskuduntza guztiak gaineratzen dizkionez Euskal Autonomi Elkarteari, Industri, Nekazaritza eta Arrantza sailburuaren proposamenez, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 1998ko urtarrilaren 13an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

I. ATALBURUA
XEDAPEN OROKORRAK

1. atala.– Helburua.

1.– Prozedura sinplifikatua ezartzea da dekretu honen helburua, hain zuzen ere, behe tentsioko eta benetako erraztasun teknikoko elektra instalazioak jardunean ipintzeari buruzko espedienteak izapidatzeko.

2.– Horretaz gain, dekretu honen aplikazio eremuak hartzen dituen instalazioen kontrol prozedura baita instalaziook jardunean ipintzerakoan parte hartzen duten agenteen auditoria-sistema ere arautzen dira.

2. atala.– Aplikazio eremua.

1.– Dekretu honen aplikazio eremuak hartzen dituen elektra instalazioak:

A.– Familia bakarrentzako etxebizitzak.

B.– Bakarka aintzakotzat hartutako etxebizitzak, baina ez eraikin eraikiberrietan.

C.– Zerbitzu orokorrak eraikiberriak ez diren eraikinetan.

rías previsto y regulado en el Decreto 175/1994, de 17 de mayo.

Debemos resaltar que la legislación vigente (Ley de Industria) regula y desarrolla el nuevo sistema de responsabilidad de todos los agentes que intervienen en la puesta en servicio de instalaciones de carácter industrial, creando los mecanismos para que sea la propia Administración uno de los sujetos capacitados para la exigencia de dicha responsabilidad a través de los procedimientos administrativos que en desarrollo de dichas normas se aprueben.

En el mismo sentido, la simplificación en la tramitación con la consiguiente reducción de la documentación que se debe presentar, pretende adaptar el procedimiento a los nuevos criterios de celeridad y eficacia en la actuación de la Administración Pública, criterios plasmados en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común .

En su virtud, y teniendo en cuenta la competencia exclusiva en materia de Industria que el Estatuto de Autonomía para el País Vasco otorga a esta Comunidad Autonomía, a propuesta del Consejero de Industria, Agricultura y Pesca, previa la correspondiente deliberación del Consejo de Gobierno en su Sesión celebrada el día 13 de enero de 1998,

DISPONGO:

CAPÍTULO I
DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 1.– Objeto.

1.– El presente Decreto tiene por objeto establecer un procedimiento simplificado para la tramitación de los expedientes de puesta en servicio de las instalaciones eléctricas de baja potencia y de efectiva simplicidad técnica.

2.– Así mismo, se regula el procedimiento de control de las instalaciones que entran dentro del ámbito de aplicación de este Decreto y el sistema de auditoría de los agentes que intervienen en la puesta en servicio de las mismas.

Artículo 2.– Ámbito de aplicación.

1.– Se encuentran comprendidas en el ámbito de aplicación de este Decreto las siguientes instalaciones eléctricas:

A.– Viviendas unifamiliares.

B.– Viviendas consideradas de forma individual, en edificios de no nueva construcción.

C.– Servicios generales en edificios de no nueva construcción.

D.– Arrisku bereziren batez sailkatu gabeko merkataritza establezimenduak, gehienezko potentzia onargarria ez dela izango 10 kWtik gorakoa.

E.– Arrisku bereziren batez sailkatu gabeko biltegiak, gehienezko potentzia onargarria ez dela izango 25 kWtik gorakoa.

F.– Trastegiak eta antzekoak, hots, ikasgelak, lanabesak gordetzeko lekuak, 3 ibilgailu baino gutxiagorako garageak edo 60 m.^{2}, horien gehienezko potentzia onargarria ez dela 10 kWtik gorakoa.

G.– Aldibaterako elektra instalazioak, alegia, kokagune bakoitzean egin behar direnak. Horien gehienezko potentzia onargarria ez da 10 kWtik gorakoa; eta euskarri mugikorra duten instalazio finko guztiak, potentzia mugarik gabe.

2.– Aurreko puntuan adierazitako instalazioei buruz dekretu honetan aditzera ematen den prozedurari lotutako jarduerak:

a) Instalazio berriak.

b) Tentsio aldaketa.

c) Instalazioen titularitate eta/edo zeregin aldaketa.

d) Instalazioen potentzia gehitzea. Garrantzizko gehiketak eta aldaketak, baldin eta euren potentzia instalatua lehengokoaren %50ekoa bada, instalazio berritzat joko dira ondorio guztietarako.

3. atala.– Definizioak.

Dekretu honetan xedatutakoan oinarrituz, hona hemen definizio batzuk:

– Tentsio aldaketa: fasetik neutrora 127 voltio igarotea, 220 voltio faseen artetik (desagertzear) gomendatutako tentsioetara, 220 voltio fase eta neutro artean, eta 380 voltio faseen artean.

– Potentzia nominala: watetan, kilowatetan edo megawatetan ematen den potentzia aktibo «erabilgarria».

– Instalazioen titularitate aldaketa: enpresa hornitzailearekin kontratua suskribatu zuen norbanakoak barik beste batek erabiltzea edo okupatzea. Poliza berria behar da horretarako edo lehengo erabiltzaile edo okupatzailearen subrogazioa.

II. ATALBURUA
INSTALAZIOAK JARDUNEAN IPINTZEKO PROZEDURA

4. atala.– Xedapen orokorra.

Dekretu honen aplikazio eremuak hartzen dituen instalazioak jardunean ipintzeko landu behar den prozedura administratiboa ondorengo ataletan ezarritakoaren arabera burutuko da.

D.– Establecimientos comerciales no clasificados con algún riesgo especial, de potencia máxima admisible no superior a 10 kw.

E.– Almacenes no clasificados con algún riesgo especial, de potencia máxima admisible no superior a 25 kw.

F.– Trasteros y similares (estudios, locales para guardar aperos, garajes de capacidad para menos de 3 vehículos ó 60 m.^{2}, ...), de potencia máxima admisible no superior a 10 kw.

G.– Instalaciones eléctricas temporales, que sea preciso realizar en cada emplazamiento, de potencia máxima admisible no superior a 10 kw y todas las instalaciones fijas sobre soporte móvil sin limite de potencia.

2.– Las actuaciones sujetas al procedimiento reflejado en este Decreto con respecto a las instalaciones referidas en el punto anterior, serán las siguientes:

a) Nuevas instalaciones.

b) Cambio de tensión.

c) Cambio de titularidad y/o actividad de las instalaciones.

d) Aumento de potencia de las instalaciones, teniéndose en cuenta que las ampliaciones y modificaciones de importancia que signifiquen un aumento de potencia instalada superior al 50% de la primitiva, se consideran a todos los efectos como si se tratase de nuevas instalaciones.

Artículo 3.– Definiciones.

A los efectos previstos en el presente Decreto, se entenderá por:

– Cambio de tensión: Es el paso de 127 voltios entre fase y neutro y 220 voltios entre fases (tensión a desaparecer) a tensiones recomendadas de 220 voltios entre fase y neutro y 380 voltios entre fases.

– Potencia Nominal: Es la potencia activa «útil» disponible expresada en Vatios, Kilovatios o Megavatios.

– Cambio de Titularidad de las Instalaciones: Es el uso u ocupación del mismo local por persona distinta de la que suscribió el contrato con la empresa suministradora, que exige nueva póliza o en su caso, la subrogación del anterior usuario u ocupante.

CAPÍTULO II
PROCEDIMIENTO DE PUESTA EN SERVICIO DE LAS INSTALACIONES

Artículo 4.– Disposición general.

El procedimiento administrativo que se deberá seguir para la puesta en servicio de las instalaciones que entran dentro del ámbito de aplicación de este Decreto, se efectuará de acuerdo con lo establecido en los artículos siguientes.

5. atala.– Instalazioak eraikitzea.

1.– Behar den baimena duen enpresak eraikiko ditu instalazioak; eta eraiki, maiatzaren 17ko 175/1994 Dekretuan ezarritakoari jarraiki eta Behe Tentsioko eta Jarraibide Tekniko Osagarrizkoen Arautegi Elektroteknikoan eta aplikagarriak diren gainerako arauetan zehaztutako zernolako teknikoak kontuan hartuz eraikiko dira.

2.– Instalazioa eraiki ostean, instalazioa eraikitzeko baimena duen enpresak «Instalazio Buletina» agiria bete beharko du, Industri, Nekazaritza eta Arrantza Sailak onartu beharko duen ereduaren arabera.

3.– Buletinaren hiru ale aterako dira. Jatorrizko alea enpresa hornitzailearentzat izango da; kopietariko bat titularrarentzat; eta bestea, baimena duen enpresarentzat.

4.– Baimena duen instalatzailea bera egingo da buletin horren harpidedun, bere enpresaren zigilu baimendua beharko duela.

6. atala.– Agirien aurkezpena.

1.– Instalazio Buletina bete ostean, aurreko atalean ezarritakoaren arabera, enpresa hornitzaileari aurkeztu beharko zaio. Zuzenbidean onartutako edozein modutan egin daiteke aurkezpena; euskarri informatikoz edo telematikoz ere egin daiteke, enpresa hornitzaileak horretarako aukera ematen duenean.

2.– Aurkeztutako agirien zuzentasuna egiaztatuko du enpresa hornitzaileak; eta bereziki, instalatzaileak eta enpresak behar besteko baimena euki dezatela.

3.– Industri, Nekazaritza eta Arrantza Sailak, aurreko puntuan jasotako ondorioetarako, baimendutako Instalatzaile eta Enpresen Erregistroko xehetasunen berri emango die enpresa hornitzaileei.

7. atala.– Instalazioen ikuskapen teknikoa.

Enpresa hornitzaileak, instalazioa jardunean ipini aurretik, instalazioa egiaztatu beharko du, Behe Tentsioko Arautegi Elektroteknikoan ezartzen den forma eta edukiaz.

8. atala.– Instalazioak jardunean ipintzea.

Enpresa hornitzaileak, aurreko ataletan adierazten diren izapideak bete eta gero, artxibatu egingo du Instalazio Buletinaren jatorrizkoa. Agiri honen kopia zigilatu bat enpresa instalatzaileari entregatuko zaio, eta instalazioaren titularrari beste bat, hornidura elektrikoaren kontratuarekin batera.

Artículo 5.– Ejecución de las instalaciones.

1.– La ejecución de estas instalaciones se efectuará, en todo caso, por una empresa debidamente autorizada, conforme a lo establecido en el Decreto 175/1994, de 17 de mayo y de acuerdo con las especificaciones técnicas establecidas en el Reglamento Electrotécnico para Baja Tensión y sus Instrucciones Técnicas Complementarias y demás normas que resulten de aplicación.

2.– Finalizada la ejecución de la instalación, la empresa autorizada ejecutora de la instalación, deberá cumplimentar el Documento «Boletín de Instalación», conforme al modelo que deberá ser aprobado por el Departamento de Industria, Agricultura y Pesca.

3.– Dicho Boletín se emitirá por triplicado ejemplar, correspondiendo el original a la empresa suministradora, y las copias una al titular y la otra a la empresa autorizada.

4.– El referido Boletín, deberá suscribirse por el Instalador autorizado y con la firma y sello de la Empresa autorizada a la que pertenece.

Artículo 6.– Presentación de documentación.

1.– De acuerdo con lo establecido en el artículo anterior, cumplimentado el Boletín de Instalación, se deberá presentar ante la empresa suministradora. Esta presentación se podrá efectuar por cualquiera de los medios admitidos en derecho, incluido en soporte informático o telemático cuando así lo admita la empresa suministradora.

2.– La empresa suministradora comprobará que la documentación presentada resulta formalmente correcta y en especial, que el instalador y la empresa están debidamente autorizados.

3.– A los efectos previstos en el punto anterior, el Departamento de Industria, Agricultura y Pesca mantendrá debidamente informadas a las empresas suministradoras de los datos del Registro de Instaladores y Empresas autorizadas.

Artículo 7.– Verificación técnica de las instalaciones.

Con carácter previo a la puesta en servicio de la instalación, la empresa suministradora deberá proceder a la verificación de la instalación en la forma y con el contenido establecido en el Reglamento Electrotécnico para Baja Tensión.

Artículo 8.– Puesta en servicio de las instalaciones.

La empresa suministradora, cumplidos los trámites previstos en los artículos anteriores, archivará el original del Boletín de Instalación, entregando las copias selladas de este documento una a la empresa instaladora y otra al titular de la instalación, junto con el correspondiente contrato de suministro eléctrico.

III. ATALBURUA
IKUSKAPEN ETA KONTROL PROZEDURA

9. atala.– Erantzukizunak.

1.– Dekretu honen aplikazio eremuak hartzen dituen instalazioak baimena duen enpresa batek eraikiko dituenaren erantzukizuna instalazioaren titular edo sustatzailek du.

Instalazioa jardunean ipini ostean aldaketa egin eta arauetan agertzen diren baldintza teknikoak horietan ez betetzearen erantzukizuna ere bere gain dago.

2.– Enpresa instalatzailea eta lana egin behar duen baimendun instalatzailea, instalazioak behar den bezala jarriko direnaren arduradunak izango dira biak batera, bai arauei dagokienetan eta bai jardunari dagokionetan ere. Horietaz aparte, honako ardura hauek ere izango dituzte, alegia, instalazioak jardunean jarri baino lehen bete behar diren agiriena, agiri horietan jasotzen diren datuen egiazkotasunarena eta instalazioaren Buletina enpresa hornitzaileari aukeztearena.

3.– Enpresa hornitzaileek, dekretu honetan ezartzen direnak ekarri ditzaten obligazioak bete beharko dituzte eta aplikagarriak izan eta indarrean dauden arauetan ezartzen direnen erantzukizunak ere beren gain izango dituzte.

10. atala.– Agiriak bidaltzea.

Enpresa hornitzaileek, energia hornitu dieten instalazioen zerrenda bat bidali beharko dute Industri, Nekazaritza eta Arrantza Sailera, gutxienez sei hilabetetik sei hilabetera. Ondoren aipatzen diren datuak jaso beharko dira zerrenda horretan:

1.– Instalazioaren xehetasun identifikagarriak.

2.– Instalazioetako titularrak eta erabiltzaileak identifikatzea.

3.– Baimendutako instalatzailearen identifikazioaz instalazioa eraiki duen enpresa instalatzailea.

4.– Hornidura kontratuaren eguna.

5.– Instalazioaren potentzia nominala.

6.– Lokala zertarako erabiltzen den.

7.– 2. ataleko 2. puntuaren arabera dagokion jarduera.

11. atala.– Industri, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren kontrola.

1.– Instalazio horien eta horiek eraikitzen parte hartzen duten agenteen kontrola, auditorien bidez, Industri, Nekazaritza eta Arranza Sailak egingo du, maiatzaren 17ko 175/1994 Dekretuan ezartzen denaren arabera.

CAPÍTULO III
PROCEDIMIENTO DE INSPECCIÓN Y CONTROL

Artículo 9.– Responsabilidades.

1.– La persona titular o promotora de la instalación es responsable de que la ejecución de las instalaciones comprendidas en el ámbito de aplicación de este Decreto, se realice por una empresa autorizada.

Así mismo, será responsable de todas las alteraciones o modificaciones que se efectúen con posterioridad a la puesta en servicio de la instalación sin cumplir con los requisitos y condiciones técnicas reglamentariamente previstos.

2.– La empresa instaladora y el instalador autorizado actuante serán en su caso, solidariamente responsables de la correcta ejecución de las instalaciones, tanto desde el punto de vista reglamentario como de su funcionamiento, así como de la emisión de los documentos que se precisen previos a la puesta en marcha de aquéllas, de la veracidad de los datos contenidos en éstos, y de la presentación del Boletín de Instalación ante la empresa suministradora.

3.– Las empresas suministradoras responderán del cumplimiento de las obligaciones que se derivan de lo establecido en el presente Decreto y del resto de responsabilidades reguladas por la normativa vigente de aplicación.

Artículo 10.– Remisión de documentación.

Las empresas suministradoras deberán remitir con una periodicidad, al menos semestral, al Departamento de Industria, Agricultura y Pesca, en soporte informático, una relación de las instalaciones a las que hayan concedido el suministro energético. En esta relación se deberán especificar los datos siguientes:

1.– Datos identificativos de la instalación.

2.– Identificación de los titulares y en su caso, usuarios de las instalaciones.

3.– Empresa instaladora que ha ejecutado la instalación con la identificación del instalador autorizado.

4.– Fecha del contrato de suministro.

5.– Potencia nominal de la instalación.

6.– Uso al que se destina el local.

7.– Actuación correspondiente de acuerdo con la clasificación del artículo 2, punto 2.

Artículo 11.– Control del Departamento de Industria, Agricultura y Pesca.

1.– El control de estas instalaciones y de los agentes que intervienen en su ejecución y puesta en servicio, se efectuará por el Departamento de Industria, Agricultura y Pesca, a través de auditorías, de conformidad con lo que establece el Decreto 175/1994, de 17 de mayo.

2.– Aurreko puntuan agertzen den kontrol berori aplikatuko zaie enpresa hornitzaileei, arau honen aurreko atalean aditzera emandako xehetasunen jarraipenari dagokionean.

INDARGABETZE XEDAPENA

Dekretu honetan xedatutakoaren aurkako maila bereko edo apalagoko xedapenak indargabeturik gelditzen dira.

AZKEN XEDAPENAK

1.– Dekretu honetako 10. atalean aipatzen den euskarri informatikoa onartuko du Industri, Nekazaritza eta Arrantza Sailak. Dekretu hau exekutatu eta garatzeko behar diren xedapenak ere emango ditu.

2.– Baimendutako instalatzaile eta enpresen erregimenari dagokionean dekretu honetan jaso gabe dagoenean, 175/1994 Dekretuan eta hori garatzen duten arauetan ezarritakoa beteko da.

3.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunetik gehiago hamar egunen barruan hartuko du indarra dekretu honek.

Vitoria-Gasteizen, 1998ko urtarrilaren 13an.

Lehendakaria,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

Industri, Nekazaritza eta Arrantza sailburua,
JAVIER RETEGUI AYASTUY.

2.– El mismo sistema de control, previsto en el punto anterior se aplicará a las empresas suministradoras, en relación con el seguimiento de los datos previstos en el artículo anterior de esta norma.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Quedan derogadas cuantas disposiciones de igual o inferior rango contradigan lo dispuesto en el presente Decreto.

DISPOSICIONES FINALES

1.– El Departamento de Industria, Agricultura y Pesca, aprobará el soporte informático al que se refiere el artículo 10 de este Decreto y dictará cuantas disposiciones sean necesarias para la ejecución y aplicación del presente Decreto.

2.– En todo lo no previsto en el presente Decreto en cuanto al régimen de instaladores y empresas autorizadas, se estará a lo establecido en el Decreto 175/1994 y normas que lo desarrollen.

3.– El presente Decreto entrará en vigor a los 10 días desde su completa publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, 13 de enero de 1998.

El Lehendakari,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Industria, Agricultura y Pesca,
JAVIER RETEGUI AYASTUY.

Zk-406

AGINDUA, 1998ko urtarrilaren 2koa, Industri, Nekazaritza eta Arrantza sailburuarena, emakidadunek, sozietate eskudunek eta Administrazioarekiko lankidetza-entitateek ikuskaritza eta arauzko kontrol eremuan aplika ditzaketen tarifak arautzen dituena.

Produktu, ekipo eta instalazio industrialen segurtasun arloari dagozkionetan, emakidadunek, sozietateek eta Administrazioarekiko lankidetzarako izan eta ikuskaritza eta kontrol egintzak burutzen dituzten entitateek, ikuskaritza eta arauzko kontrol arloko egintzetan aplika ditzaketen tarifak 1990eko apirilaren 10eko Aginduaren bidez arautu ziren.

Agindu horretan bertan, zera ere finkatzen zen, alegia, agindu horretako eranskinean aipatzen ziren tarifak aldatu eta/edo gaurkotu ahal izango zirela,

N°-406

ORDEN de 2 de enero de 1998, del Consejero de Industria, Agricultura y Pesca, por la que se regulan las tarifas aplicables, en el ámbito de Inspección y Control Reglamentario por los Concesionarios, Sociedades Competentes y Entidades Colaboradoras de la Administración.

Por Orden de 10 de abril de 1990 quedaron reguladas las tarifas aplicables, en las actuaciones en el ámbito de Inspección y Control Reglamentario en materia de seguridad de productos, equipos e instalaciones industriales, por los Concesionarios, Sociedades y Entidades de Inspección y Control Colaboradoras de la Administración.

En la misma, se establecía que las tarifas contenidas en el Anexo a la citada Orden estarían sujetas a modificación y/o actualización, a fin de adaptarlas, a